



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

V. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2023ko maiatzaren 17, 18 eta 19a
Donostia, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 3.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

Hizkuntza-aniztasuna eta
elebitasuna afasiologian

Monike Egia Zabala

81-87 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.v.01.10>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Hizkuntza-aniztasuna eta elebitasuna afasiologian

Monike Egia Zabala
UPV/EHUko Letren Fakultateko ikaslea
megia003@ikasle.ehu.eus

Laburpena

Afasiologiaren ikerketek hizkuntza-aniztasunean eta elebidunen ikerketan gabezia handia erakusten dute. Honek ondorio larriak ditu, alde batetik, afasiaren sintomatologiak desberdinak direlako hizkuntza batetik bestera eta bestetik, elebidunen kasuan, urraketa eta berreskuratze motak desberdinak izan daitezkeelako hizkuntza bakoitzean. Ikerlan honetan, 2010 eta 2014 bitarteko afasiaren inguruko artikuluak aztertu dira hizkuntza-aniztasuna eta elebitasuna bertan nola islatzen diren ikusteko, eta Beveridge eta Bak-en (2011) eta Mendiaren (2022) lanen arteko hutsunea betetzeko. Emaitzek azken 20 urteetan antzeko joera antzeko bat erakutsi dute: afasiadun ingeles azterketak gailentzen dira, hizkuntza indoeuroparrenekin batera, eta elebidunenak, aldiz, oso urriak dira oraindik (% 6,72).

Hitz gakoak: afasia, elebitasuna, hizkuntzaren ebaluazioa

Abstract

The studies of aphasiology shows a great lack of linguistic diversity and bilingual research. This has serious consequences, on the one hand, because the symptomatology of aphasia differs from one language to another, and on the other hand, because in the case of bilingual people, the types of impairment and recovery can be different in each language. This study has analysed the papers on aphasia between 2010 and 2014 in order to know how linguistic diversity and bilingualism is represented in such literature and to fill the gap between Beveridge and Bak (2011) and Mendia (2022). The results reveal a similar trend over the last 20 years: the study of English individuals with aphasia stands out, along with the Indo-European languages, while studies on bilinguals are still very rare (6.72%).

Keywords: aphasia, bilingualism, language assessment

1. Sarrera eta motibazioa

Afasia hitzak, hitzez hitz, “mintzairarik gabea” esan nahi du (a-: gabe, -phasis: mintzaira), eta burmuineko lesio baten ondorioz, hizkuntza arazoak agertzeari deritzo, adimena eta fonazio organoak bere horretan mantentzen direla. Garunean jasandako kaltearen eraginez, ekoizteko edo ulertzeko gaitasunetan kalteak ager daitezke, hau da, bai ahozko zein idatzizko hizkuntzan ager daitezke kalteak (Hillis, 2007). Hizkuntza arazoak agertzearekin batera, bestelako arazoak ere agertzea ohikoa da, besteak beste, memoria edo atentzioa galtzea, paralisia, epilepsia... eta abar. Horren ondorioz, pertsona horien bizi-kalitateak txarrera egiten du (Ivanova & Hallowell, 2013; Villanueva-Sánchez, Ozamiz-Etxebarria, Munarriz-Ibarrola, & Pourquié-Bidegain, 2021).

Egun, 2023. urtean, bi milioitik gorakoa da afasia sufritzen dutenen kopurua; parkinsona, muskulu-distrofia edo garun-paralisia baino ohikoagoa da, nahiz eta terminoa, askorentzat, ezezaguna izan. Arazo motak, oro har desberdinak izan daitezke bi faktoreren arabera: kaltea burmuinaren zein lekutan eta zein larritasunarekin ematen den (Pourquié, 2017). Afasiaren ondorioz hizkuntzan ageri diren arazoak edo afasia-sintomak hizkuntzen ezaugarrien arabera dira hein handi batean (Paradis, 2001; Pourquié, 2017), horregatik, arazoaren oinarrian dagoen ezintasuna zehaztasunez ezagutzeko garrantzitsua da askotariko hizkuntzetan sintomak nolakoak diren ezagutzeko. Ez hori

bakarrik, pazientea elebiduna ala elebakarra den kontuan hartu beharra dago eta honen hizkuntza historiaz jakitun egon. Izan ere, hizkuntza-arazoak elebidunengan ez dira beti maila eta mota berekoak izaten bi hizkuntzean (Kuzmina et al. 2019; Munarriz, 2018).

Kontuan izanik azken urteetan gero eta ohikoagoak diren gizarte-mugimenduak eta hezkuntzan elebitasun eta eleaniztasunak hartu duten garrantzia, elebitasunak/eleaniztasunak gora egin du, eta gero eta ohikoagoa da askotariko hizkuntzak erabiltzea. Hortaz, afasiaren inguruko ikerketetan hori nola islatzen den aztertzea funtsezkoa da azken urtetako egoera zein den ezagutzeko, eta aurrera begira afasiologiaren ikerketek nondik nora jo lezaketen ikusteko.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

2.1. Hizkuntza-aniztasuna eta elebitasuna afasiaren inguruko ikerketetan

Adituak XVII. mende amaieratik afasia ikertzen aritu badira ere, ikerkuntzak areagotu diren heinean eta beraz, gaia sakonago ezagutu bitartean, ikerbide gehiagoren beharra ikusi da. Horien artean, afasia hizkuntza ezberdinetan ikertzea. Afasiak eragiten dituen sintomak ez dira berdin gauzatzen hizkuntzaz hizkuntza; sintoma batzuk orokorrak dira eta beste batzuk, aldiz, hizkuntza edo hizkuntza-taldeen arabera (Paradis, 2001; Pourquié, 2017). Hori dela eta, garrantzitsua da, askotariko hizkuntzak dituzten hiztunak aztertzea. Hala ere, hori ez da beti gertatzen, tartean ebaluazio-tresnen gabezia baitago hainbat hizkuntzatan. Hau da, hizkuntza askotan ez daude tresna estandarizatuak ebaluazioa egin ahal izateko, eta nahiko ohikoa da profesionalek eurek egindako itzulpenak baliatzea. Horregatik, horrelako ebaluazioen fidagarritasuna zalantzan jar daiteke (Ivanova & Hallowell, 2013; Villanueva-Sánchez, Ozamiz-Etxebarria, Munarriz-Ibarrola, & Pourquié-Bidegain, 2021).

Bestalde, gaur egun, munduko biztanleen erdia edo gehiago elebiduna da eta haurren bi heren, gizarte elebidun batean hezten dira (Faroqi-Shah, Frymark, Mullen, & Wang, 2010). Gainera, biztanleriaren adinaren banaketa aldatuz doa; 2015ean, munduko 60 urtetik gorako biztanleria % 12koa zen bitartean, 2050ean % 22koa izatea espero da, hau da, ia bikoiztea. Honek eragina izango du, adinak aurrera egin ahala, garun isuriek arrisku handiagoa dutelako eta garun isuri hori gaintitzen dutenen % 30ek afasia izaten dutelako albo efektutzat (Norvik et al., 2022).

Pertsona eleaniztunen kopurua gehiagotzeak eta garun isuriak dituzten adineko pertsonen kopurua gero eta handiagoa izateak, zalantzarik gabe, afasia duten pertsona eleaniztunen kopurua handitzea ekarriko du. Hori dela eta, azken urteotan, pertsona elebidun afasiadunen ikerketak, hizkuntzaren neurobiologiaren teorien muga garrantzitsu gisa agertu dira. Izan ere, hizkuntza-urritasunaren ereduak desberdinak dira afasia duten hiztun eleaniztunetan, nahiz eta oraindik sarritan aztertuak ez izan (Kuzmina et al., 2019). Zein hizkuntzak jasoko duen kalte handiagoa jakiteko, ezinbestekoa da hizkuntza guztiak baloratzea, kasu bakoitzean afasiaren ondorio linguistikoak lortzeko (Norvik et al., 2022). Izan ere, adituek ez dakite lehen hizkuntza edo gehien erabiltzen den hizkuntza, zein izango den kaltetuena, ez eta hizkuntza bakararra tratatzeak bestearen berreskurapenean lagunduko duenik ere.

Edonola ere, afasiaren inguruko ikerketetan ez da beti islatzen hizkuntza-aniztasuna eta elebitasuna. Beveridge eta Bakek (2011) XXI. mendearen lehen hamarkadan (2000-2009) afasiaren inguruan argitaratu ziren artikuluak aztertu zituzten afasiaren literaturan hizkuntza-aniztasunak eta elebitasunak duen agerpena ezagutzeko asmoz, eta ondorioztatu zuten afasiologiako ikerketak ez zirela munduko hizkuntza-aniztasunaren adierazgarri. Mendiak (2022), lagina zabaldu zuen 2015-2019 urteak aztertuta, eta antzeko joerak aurkitu zituen. Nire gradu amaierako lanaren helburua (Egia, 2023, bidean), hartara, tartean gelditu diren bost urteko hutsunea aztertzea da, hots, 2010-2014 bitartean argitaratutako lanak aztertzea afasiaren inguruko literaturan hizkuntza-aniztasuna eta elebitasuna nola islatzen diren ezagutzeko. Hartara, aukera dago ezagutzeko literaturarik berrienean, hots, Beveridge eta Baken (2011) lanaren ondorengo 10 urteetan antzerako emaitzak ageri diren.

2.2. Ikerketaren helburuak


Ikerlan honen xede nagusia, Beveridge eta Baken (2011) eta Mendiaren (2022) lanei jarraipena ematea da eta horrela, afasiaren literaturaren inguruko azterketan dagoen hutsunea betetzea. Izan ere, Beveridge eta Baken (2011) 2000-2009 urteetan zehar argitaratutako literatura aztertu zuten eta Mendiaren (2022), 2015-2019 bitartekoa. Beraz, lan honetan, afasiaren literaturan, 2010-2014 urte bitartean, afasiaren ebaluazioaren irudikapena aztertu dut. Horrela, azken hogeitaz urteetako irudi bat jaso ahalko dugu, bai literaturak urteetan zehar izan duen joera aztertu ere. Horretarako, hizkuntza arazoaren ebaluazioari dagozkien hainbat faktore aztertu ditut, besteak beste, hizkuntza aniztasuna, elebitasuna eta ebaluaziorako tresna.

3. Ikerketaren muina

3.1. Metodologia

Ikerketa hau burutzeko, Beveridge eta Baken (2011) lanerako metodologian oinarritu naiz. *Scopus* datu baseaz baliatuz, afasiologiaren inguruko lau aldizkari nagusitan (*Aphasiology*, *Brain and Language*, *Journal of Neurolinguistics* eta *Language, Cognition and Neuroscience*) 2010-2014 bitartean argitaratutako afasiaren inguruko lanak aztertu ditut. Lagina aukeratzeko prozesuan, *aphasi** eta *assess** hitz-gakoak baliatu nituen aipatutako epe eta aldizkarietara mugatuz (ikus 1. Irudia). Bilaketa horren ondoren 146 artikulua aurkitu nituen.

1. irudia. *Scopus* datu baseko bilaketa.



146 document results

KEY (aphasi* AND assess*) AND PUBYEAR > 2009 AND PUBYEAR < 2015 AND (LIMIT-TO (EXACTSRCTITLE, "Aphasiology") OR LIMIT-TO (EXACTSRCTITLE, "Journal Of Neurolinguistics") OR LIMIT-TO (EXACTSRCTITLE, "Brain And Language") OR LIMIT-TO (EXACTSRCTITLE, "Language Cognition and Neuroscience"))

Edit Save Set alert

Lagina hautatzeko orduan, jarraitutako inklusio-irizpideak hurrengoak izan ziren: batetik, pazienteen hizkuntza-gaitasunak zuzenean aztertzen zituzten edo afasia-terapiak gaitasun horietan duen eragina aztertzen dituzten artikulua aukeratu nituen, afasiadun pertsonak elebakarrak edo elebidunak izan. Aldiz, afasiadunak ebaluatzen ez diren artikulua edo gaixo afasikoen datu berririk ematen ez duten artikulua, hau da, literaturaren berrikuspenak zirenak albo batera utzi nituen. Irizpide horiek betetzen ez zituzten artikulua albo batera utzita, gradu amaierako lan honetarako lagina 94 artikulurekin osatu zen.


Analisiari dagokionez, Beveridge eta Bak (2011) eta Mendiaren (2022) lanetan bezala, hurrengo datuak kodetu eta aztertu nituen: afasiadunengan ebaluatutako hizkuntza(k), afasiadunak elebakarrak edo elebidunak ziren, elebidunak izatekotan horrela izatekotan ea afasiadunen hizkuntza guztiak ebaluatzen ziren, ea afasia mota (jariakorra, ez jariakorra edo zehaztu gabea), afasiadunen hizkuntza historiaren berri ematen zen, eta horrela izanez gero, datu horiek nola lortu ziren (galdetegi bidez, bestela) eta, azkenik, ebaluaziorako zein tresna erabili zen. Edonola ere, artikulua honetan bi aztergaitara mugatuko naiz nagusiki: hizkuntza-aniztasuna eta elebitasuna.

3.2. Emaitzak

Hasteko, lan horietan agertutako hizkuntza-kopurua zenbatu nuen, hizkuntza-aniztasuna aztertzeko. Guztira 27 hizkuntza desberdin ageri ziren artikuluetan, eta kontuan izanda munduan 7151 (Eberhard, David M., Gary F. Simons, & Charles D. Fennig, 2022) hizkuntza inguru daudela, hau da, munduko hizkuntzen % 0,38. Gainera, hizkuntza horiek oso modu heterogeneoan ageri ziren artikuluetan: artikulua guztien % 54,4an ingelesa ageri zen eta gaztelania (% 5,6), alemana (% 4,8), frantsesa (% 4,8) eta mandarinerak (% 4) kendurik, gainerako hizkuntzak % 2,4 edo gutxiagotan ageri ziren. Kopuru hori oso urria da ingelesa ez den gainontzeko hizkuntzen azterketetarako.


Horrez gain, hizkuntza familiei erreparaturaz (ikus 2. Irudia), % 84 hizkuntza indoeuoparren familiakoak ziren eta % 16 hizkuntza ez-indoeuoparrekoak. Hizkuntza indoeuoparren barnean, honako hizkuntza hauek ageri ziren: ingelesa (n = 68), gaztelania (n = 7), alemana (n = 6), frantsesa (n = 6), greziera (n = 3), suediera (n = 3), katalana (n = 2), portugesa (n = 2), afrikaansa (n = 2), txekiera (n = 1), italiara (n = 1), norvegiera (n = 1), persiera (n = 1) eta hindia (n = 1). Horien guztien artean, hizkuntza germanikoak % 64 ziren eta erromantzeak % 14,4. Gainontzekoak, indo-iraniar hizkuntzak (% 1,6), persiera eta hindia esaterako, eta beste familia batzuetakoak (% 4) izan ziren. Aztertutako hizkuntza ez-indoeuoparrak, bestalde, hurrengo hauek izan ziren: mandarinerak (n = 5), kantonera (n = 1), turkiera (n = 3), finlandiera (n = 2), Malaysiera (n = 2), hungariera (n = 1), sothoera (n = 1), tswanera (n = 1), zuluera (n = 1), xhosea (n = 1), hebreera (n = 1), japoniera (n = 1) eta arabiera (n = 1). Aipatzekoa da, halaber, artikulu horietako batzuetan (n = 12) ez dela aipatzen hiztun afasiadunak zein hizkuntzako hiztunak diren, nahiz eta gero adibideetan ikus daitekeen ingeles hiztunak direla. Hori ere ingelesaren nagusitasunaren ebidentziatzat har liteke.

2. Irudia. Aztertutako laginean ageri diren hizkuntza-familiak



Emaitza horiek Beveridge eta Baken (2011) eta Mendiaren (2022) emaitzekin alderatzean ikusten da, hizkuntza-aniztasunari dagokionez, joera ez dela askorik aldatu: 2000-2009 urteetan zehar, afasiadunak ingelesez aztertzen zituztenen artikulukoak % 62 izan ziren, 2015-2019 bitartean % 64 eta ikerlan honekin ikusi dugu 2010-2014an % 54,4koa izan zela (ikus 3. Irudia). Hizkuntz familiei dagokionez ere, emaitzak antzerakoak izan dira 3 denbora-tarte horietan argitaratutako lanetan, 3. Irudian ikusten denez: 2000-2009an hizkuntza indoeuoparren lagina % 92koa izan zen, 2015-2019 urteetan % 88,8koa eta 2010-2014an % 84koa (Egia, 2023, bidean).


3. Irudia. Hizkuntza-aniztasunaren emaitzak aurreko lanekin alderatuta



Bigarrenik, elebitasuna nola islatzen den aztertu nuen. Ikertutako artikuluetatik % 30ean zehazten zen pazienteak elebiduna edo elebakarra zen, eta lagin osotik soilik % 18an aztertu ziren afasiadun elebidunak edo eleaniztunak. Azkenik, lan guztien % 11,7an ikertu izan ziren afasiadunen hizkuntza guztiak, gainerakoetan, afasiadunen hizkuntza bakarra aztertu zen. Horrez gain, elebidunak aztertutako lanen % 64an afasiadunen hizkuntza historiaz galdetu zitzaizen eta horretarako, kasu gehienetan ez zen zehazten zein galdetegi erabili zen. Zehaztu zenen artean, galdetegi ohikoena, *Bilingual Aphasia Test* (BAT) afasiadun elebidunak ebaluatzeko tresna estandarren A zatia izan zen (Paradis & Libben, 1987).

Elebitasunaren agerpenean ematen du nolabaiteko aldea dagoela aurreko lanekin alderatzean (4. Irudia). Izan ere, Beveridge eta Baken lanaren arabera, 2000-2009 bitartean laginaren % 3,96an aztertzen ziren elebidunak eta hauen hizkuntza guztiak, Mendiaren laginaren % 4,5ean baina, aldiz, 2010-2014 bitartean ehuneko pixka bat altuagoa da, % 11,7an elebidunak aztertu baitira. Hala ere, ez dirudi hori joera iraunkor baten adierazpide, izan ere, hurrengo bost urteetan ehunekoak berriro ere behera egin zuen Mendiaren (2022) lanak erakutsi zuenez.. Orokorrean, azken 20 urteetan, elebidunen azterketen batzuek % 6,72koa da (Egia, 2023, bidean). Portzentaia hau oso baxua da, aurretik esan bezala, gizartearen erdia baino gehiago elebiduna dela jakinik. Horrek, afasiaren ikerkuntzan elebidunen inguruan dagoen gabezia agerian uzten du.

4. Irudia. Elebidunen azterketak aurreko lanekin alderatuta



4. Ondorioak

Aurretik esan bezala, egindako ikerketari esker, afasiaren inguruko literatura nolakoa den aztertu genezake. Ikusi den bezala, egungo literatura afasikoa ez da munduko hizkuntzen adierazgarria. Ingelesarekiko eta Europako mendebaldeko beste hizkuntza batzuekiko joera muturrekoak, mundu osoko terapia afasikoaren aplikagarritasuna mugatzen du. Egindako ikerketan haxe bera ikusi dugu, izan ere, bost hizkuntzek ikerketa guztien ia hiru laurden hartu dute: ingelesa, gaztelania, frantsesa, alemana eta mandarinerak (% 73,6).

Ondorioz, afasiaren ikerketan, soilik hizkuntza hegemonikoak kontuan hartzeko joera dagoela ikusten da, gainerako hizkuntzak alde batera utzirik. Ikerketa batzuetan ikusi den bezala, ez da afasiadunaren kaltetutako hizkuntza aipatu ere egin, ingelesa dela jakintzat joz. Honek aditzera ematen du ingelesa ez den hizkuntza ororen ikerketak aztertugabeak izaten direla, edo ingelesa aztertzeko sortutako tresnekin ebaluatuak izaten direla. Baina honek, emaitza desegokiak dakartza, esan bezala, afasiaren sintomatologia aldagarria delako hizkuntzatik hizkuntzara. Esate baterako, indoeuroparra den ingelesak edo indoeuroparra ez den euskarak, afasia sintoma desberdinak dituzte; sintomak, hizkuntzaren ezaugarri gramatikalen arabera izaten dira eta beraz, euskara-ingelesa edo euskara-gaztelania hitz egiten dituen elebidun afasiko batean akats gramatikal oso ezberdinak ageri

dira (Ivanova & Hallowell, 2013; Villanueva-Sánchez, Ozamiz-Etxebarria, Munarriz-Ibarrola, & Pourquié-Bidegain, 2021).

Afasia aztertzen duten adituen artean, elebidunei dagokienez, ikertu beharreko bi galdera orokor daude: alde batetik, H1 (ama-hizkuntza) ez ote den gutxiago kaltetua izango garuneko kaltearen aurrean, beranduago bereganatutako hizkuntzarekin konparatuz (H2) eta bestalde, maizago erabiltzen den hizkuntza, lesioaren ondoren berreskurapenean pribilegiatua izan ote daitekeen (Kuzmina et al., 2019). Galdera hauen erantzunak aurkitzeko helburuarekin, guztiz beharrezkoa da elebidunen azterketa gehiago egitea, bestela ez dira honen ondorio ziurrak lortuko.

Agerikoa da profesionalek afasiadun elebidunekin lan egiteko prestakuntza falta dutela, izan ere, kontuan izanda biztanleriaren erdia baino gehiago elebiduna dela, ikertzen diren afasiadunen artean, aipatzen direnak baino gehiago elebidunak izatea espero da. Hau da, ziurrenik ikertzaileek elebidunekin egingo dituzte azterketak, hauek elebidunak direla jakin gabe edo informazio hau aintzat hartu gabe. Hau akats larria da, aurretik esan bezala, elebitasunak eragina du afasia ikertzeko orduan, bere hizkuntza guztiak ebaluatzeak berebiziko garrantzia du eta (Paradis, 2004 ; Kuzmina, Goral et al., 2019).

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Etorkizunera begira, komeniko litzateke lagina beste hainbat aldizkaritara zabaltzea, horrela, hizkuntza-aniztasuna eta elebitasunaren joerak zehatzago aztertu ahalko lirateke. Hau da, lagina handituz ea joerak aldatuko liratekeen aztertzea. Gainera, hizkuntza gutxituetan dauden zailtasunak aintzat hartuta, hauen inguruan egindako hainbat lan argitaratu gabe gelditzen dira, edo aldizkari ezezagunetan agertzen dira. Horrenbestez, hauek kontuan hartzea funtsezkoa izan beharko luke.

Espero da, egindako ikerketek, arazo honen existentziaren kontzientzia piztea. Egia da, literatura zientifikoan ingelesa modu globalean erabiltzeak esperientzia klinikoak mundu osoan zehar partekatzeko aukera ematen digula. Hala ere, afasiadun pazienteek hizkuntza desberdin ugari hitz egiten dituzte, eta beraz, egindako ikerketa klinikoetan ondorio ziurragoak lortzeko asmoz, adituen lanek hori kontuan hartu behar dute.

Egoera honen aurrean, komenigarria litzateke etorkizunera begira afasia ikertzen dutenen artean ohitura aldatzea ematea. Horien artean, ikerketak ingelesa ez ezik, hizkuntza gehiagotara zabaltzea, indoeuroparrak ez direnak barne eta afasiadun elebidunen azterketak indartzea. Helburu hau betetzeko, beharrezkoa litzateke afasiaren ebaluaziorako tresna berriak garatzea edo hauek hizkuntza gehiagotara egokitzea. Linguistikoki pluralagoa den afasiaren inguruko ikuspegi bat garatzea lehentasunetako bat izan beharko litzateke etorkizuneko afasiaren ikerketan.

6. Erreferentziak

- Beveridge, M. E. L., & Bak, T. H. (2011). The languages of aphasia research: Bias and diversity. *Aphasiology*, 25(12), 1451–1468.
- Eberhard, David M., Gary F. Simons, and Charles D. Fennig (eds.) (2022). *Ethnologue: Languages of the World*. Twenty-fifth edition. Dallas, Texas: SIL International.
- Egia, M. (2023, bidean). Hizkuntza-aniztasuna eta elebitasuna afasiologian: 2010-2014 bitarteko artikulua zientifikoak aztergai. UPV/EHU. Gradu amaierako lana.
- Faroqi-Shah, Y., Frymark, T., Mullen, R. T., & Wang, B. Y. (2010). Effect of treatment for bilingual individuals with aphasia: A systematic review of the evidence. *Journal of Neurolinguistics*, 23(4), 319-341. <https://doi.org/10.1016/j.jneuroling.2010.01.002>.
- Hillis, A. E. (2007). Aphasia: Progress in the last quarter of a century. *Neurology*, 69(2), 200–213. <https://doi.org/10.1212/01.wnl.0000265600.69385.6f>
- Ivanova, M. V., & Hallowell, B. (2013). A tutorial on aphasia test development in any language: Key substantive and psychometric considerations. *Aphasiology*, 27(8), 891–920. <https://doi.org/10.1080/02687038.2013.805728>
- Kuzmina, E., Goral, M., Norvik, M., & Weekes, B. S. (2019). What Influences Language Impairment in Bilingual Aphasia? A Meta-Analytic Review. *Frontiers in Psychology*, 10(445). <https://doi.org/10.3389/fpsyg.2019.00445>

- Mendia, I. (2022). Hizkuntza-aniztasuna eta elebitasuna afasiologian: 2015-2019 bitarteko artikulu zientifikoak aztergai. UPV/EHU. Gradu amaierako lana.
- Munarriz, A. (2018). Hizkuntzak burmuin elebidunean; zer erakusten du gaztelania-euskara elebidun afasiko baten kasu-azterketak? *EKAIA Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzi eta Teknologi Aldizkaria*, 34, 191–208. <https://doi.org/10.1387/ekaia.17899>
- Norvik, M. I., Lind, M., & Jensen, B. U. (2022). Working with multilingual aphasia: attitudes and practices among speech and language pathologists in Norway. *International Multilingual Research Journal*, 1–18. <https://doi.org/10.1080/19313152.2021.2015935>
- Paradis, M. (2001). The need for awareness of aphasia symptoms in different languages. *Journal of Neurolinguistics*, 14(2–4), 85–91. [https://doi.org/10.1016/S0911-6044\(01\)00009-4](https://doi.org/10.1016/S0911-6044(01)00009-4)
- Pourquié, M. (2017). Afasiaren azterketa hizkuntza ezberdinetan neurozientzia kognitiboaren ikuspegitik. *EKAIA Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzi eta Teknologi Aldizkaria*, 31, 157-167. <https://doi.org/10.1387/ekaia.16358>
- Villanueva-Sánchez, I., Ozamiz-Etxebarria, N., Munarriz-Ibarrola, A., & Pourquié-Bidegain, M. (2021). Afasiaren ebaluazioa eta tratamendua euskaldunengan: Euskal Herriko egungo egoeraren azterketa. *Gaceta Medica de Bilbao*, 118(2), 81–90.

7. Eskerrak, aipamenak

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Gradu Amaierako Lan hau zuzentzen ari den Amaia Munarriz Ibarrolari.